


LEA ARTIBAIKO TURISMOA

2008 urteko ekintzak

2008 urtea aurrera doan ahala, interesgarria jotzen dugu zuei jakinaraztea turismo arloan garatzen ari diren ekintzak eta proiektuak eskualde mailan.

Leartibai Garapen Agentziak, pasa den urtean hartu zuen ardurarekin jarraituz, 2008 urtean turismo ekintza plana jarri du martxan, lau ildo estrategikoak landuz: Turismoaren kudeaketa, dinamizazioa eta produktuen sorrera, sektorearen lehiakortasuna eta sustapena. Lan ildo bakoitzean zenbait ekintza jarri dira martxan, ezarrita ditugun helburuak betetzeko asmoz.



KOMUNIKAZIO PLANA

- ✓ Banner El Correo Digital (maiatzar- ekaina, urria-azarra)
 - ✓ Bilboiko Gida (martxoar- maiatzar- uztaila eta iraila)
 - ✓ Nabarrerria Aldizkaria (Aste Santua, uda eta negua)
 - ✓ Herri Irratia (Expovacaciones, Por la Senda del Kiosko)
 - ✓ Berria
 - ✓ Hitz Festariá Festa
- ✓ Turismo y Ocio (Udako edizioa, estatu mailako banaketa)
 - ✓ Argazki bilduma
 - ✓ Iragarrien diseinua

ORAIN ARTE GARATUTAKO EKINTZA NAGUSIAK:

1. KUDEAKETA:

- Turismo arloan aukeran dauden dirulaguntzen programetan parte hartu dugu eskualde mailan.

2. DINAMIZAZIOA:

- Basquetourreko Euskadiko ibilbideen proiektuan parte hartu dugu, azterlanaren arduradunarekin bilduz, eskualdeko ibilbideak proiektuan agertzeko.
- Prospektiba lanak egiten ari gara, eskualdeko zenbait baliabide turismo balioan jartzeko aukerak aztertuz.

3. SEKTOREAREN GARAPENA:

- Martxoan eta maiatzean turismo arloan dauden dirulaguntzen berri luzatu diegu eskualdeko sektoreko enpresei.
- Turismo arloan sortu berri diren enpresei aholkularitza zerbitzua eskaini diegu.
- III. Turismo Topaketen egitaraua lantzen gaude, azaroan ospatuko diren jardunaldiak prestatzeko.
- Trebakuntza beharizanaz aztertzeke asmoz, inkesta bat egin dugu sektoreko enpresen artean. Honen ondorioz, zenbait ikastaro garatzeko aukerak aztertuko ditugu.

4. KOMUNIKAZIOA ETA PROMOZIOA:

- Komunikazio plana dela eta, medio ezberdinetan agertu da Lea Artibai Eskualdea. Plangintza egiterakoan, gure eskualdeko turisten profila izan dugu kontutan, eta baita ere beste erakundetatik egiten den promozioa, sinergiak aprobetxatzu eta baliabideak optimizatuz.
- Turismo azoketan parte hartu dugu: FITUR, STIC eta Expovacaciones. Azken honetan, Bizkaia Kosta Elkartearekin batera, pintxo dastaketa bat antolatu genuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz. Horretarako, Pantxo Bedialauneta izan genuen gure eskualdeko produktuen aurkezle.
- Bizkaia Natural markapean egindako ekintza eta promozioan parte hartu dugu.
- Pasa den urtean argitaratu genituen eskualdeko katalogo berria eta mapa, eskualdeko ostatu eta jatetxeen artean banatu ditugu. Baita Euskadiko turismo bulegoetan ere.
- Ondarroa eta Lekeitioko turismo bulegoko arduradunek, eskualdeko ibilbideen foiletoa egiteko iradokizuna egin digute. Urtea bukatu orduko banatu ahal izango dugu foileto berria, eskualdeko maparen formatua aprobetxatuz.
- Cicerone informazioa sistema sustatzeko, foileto berri bat lantzen ari gara.
- Web orriko edukiak gaurkotu egingo dira.

Itsasoz eta lehorrez Lea Artibai katalogoan, eskualdeko mapan edo www.learjai.com web orrian agertzen den datoren bat oker badago (helbideak, telefono zenbakiak, e.a.), mesedez jarri kontatuan gurekin nirusta@leartibai.com helbide elektronikoan edo 946034111 telefono zenbakian.

Si encuentra algún dato erróneo (dirección, teléfono, etc...) en el mapa comarcal, el catálogo de Lea Artibai Por tierra y mar o en la página web www.learjai.com, por favor, contacte con nosotros en la dirección de correo electrónico nirusta@leartibai.com o en el teléfono 946034111.

NOLAKOA DA LEA ARTIBAICO turista?

Zein da gure turistaren profila? Zer dakigu beraiei buruz? Oso garrantzitsua da gure bisitarien datuak ezagutzeko, daukagun eskaintza hobeto zuzendu ahal izateko. Horregatik, Lekeitioko Udalak inkesta programa bat jarriko du martxan irailan bisitarien profila ezagutzeko asmoz. Bestalde, datorren urtean, Leartibai Garapen Agentziak sektorearen laguntza eskatuko du bisitarien datuak jasotzeko. Horrela, Lea Artibaiko turistaren profil zehatza landu eta ezagutu ahal izango dugu.

¿Cuál es el perfil de los turistas que nos visitan? ¿Qué sabemos de ellos? Es muy importante conocer los datos de nuestros visitantes para poder hacer una oferta más adaptada a ellos. Por eso, el Ayuntamiento de Lekeitio va a poner en marcha un programa de encuestas en septiembre con el fin de conocer el perfil de sus visitantes. Por otro lado, Leartibai Garapen Agentzia solicitará el año que viene la colaboración del sector para poder recoger datos sobre los visitantes y elaborar el perfil exacto del turista de Lea Artibai.

- %33a Euskadikoa, % 33a estatukoa eta beste % 33a atzerrikoa.
- Nongoak? → Bizkaia, Cataluña, Frantzia, Madril eta Nafarroa.
- Normalean bikotean doaz.
- Goi mailako ikasketak dituzte.
- Maila sozio-ekonomikoa ertaina.
- Gehienak udan datoz.
- %72aren adina 25-65 bitartekoa da.
- Zer bisitatzan dute? → Lekeitio, Ondarru, Bilbo, Donosti eta Gernika.
- Gastuen aurrekontua gora beherakoa da.
- Bisitarien erdiak ezagutzen du gure eskualdea.
- Bere motibazio nagusia: Toki berriak ezagutu eta atsedena hartu.
- 2-3 egun edo astebete/aste biko iraupena du bidaiak.
- Gure eskualdean 2-3 egun geratzen dira, edo bestela 5 baino gehiago..
- Normalean bakoitzak bere bidaia antolatzen du, internet edo lagunen aholkuak erabiliz.
- Familiako kide edo lagunengoen gomendioak dira motibazio faktore nagusiak.




Turistaren %88,8ak berriz etorriko dela dio, eta %55,9ak Lea Artibai berak espero zuen baino gehiago gustatu zaiola dio.



BISITARIEN DATUAK

Pasa den urteko Lekeitio eta Ondarruko turismo bulegoen bisitarien datuak aztertuz, argi geratzen da uda dela bisitari gehien jasotzen dugun urtaroa. Dena dela, udaberrian (bereziki Aste Santuan) eta udazkenean ere bisitarien kopurua erdi mailan geratzen da.

Jatorriaren dagokiona, datuak parekoak dira estatu eta atzerriko bisitarien artean. Euskadiko bisitariak, aldiz, urte osoan zehar banatzen dira. Honek dira txangozaletasun tipologiakoak, hau da, gure eskualdera eguna pasatzen ematen direnak.



Agenda ●●●

OSTATU BERRIAK 2008

- Villa Itsaso (Mendexa)
- Oxangoiti (Lekeitio)

TURISMO BALIABIDEAK

- "Therese" erakusketa Lekeitioko irlan. Jose Pablo Arriagaren, Afrikara egin zuen bidaiaren ondorioz, sortutako lana.
- Simon Bolibar Museoa: 946164114
- Playa de Ondarzabal txalupa: 946844017
- Bisita gidatuak: Lekeitio eta Ondarroako turismo bulegoek eskaintzen dute herritik zehar.

INFORMAZIO GEHIAGO

Leartibai Garapen Agentzia
Turismo Arloa
Sabino Arana, 14, 48280 Lekeitio
Tel: 94 603 41 11 • Fax: 94 603 41 13
e-mail: nirusta@leartibai.com
www.learjai.com • www.leaibarra.com

Leartibai
Garapen Agentzia


Lea Ibarreko
Udal Mankomunazgoa

EUSKADI
atsegin handiz
con mucho gusto


Bizkaia